

IRAKURKETA-GIDA

Jara live

Jasone Osoro

begiko

Jara live

Jasone Osoro

LIBURUAREN AURKEZPENA



Egilea

Jasone Osoro Igartua Elgoibarren jaio zen. Kazetaria da lanbidez eta, prentsan ez ezik, telebistan ere aritu ohi da gidoigile. Literaturari dagokionez, liburu hauek idatzi ditu: *Tentazioak* eta *Korapiloak* ipuin-liburuak, *Isadora* biografia, *Greta* eleberria, bere haurdunaldiari buruzko *Bi marra arrosa*, eta gazteentzako *Ezekiel* eta *Eskularru beltzak*.

Baina gazteen alorrean nabarmentzekoa da, dudarik gabe, 2001ean Jasonek sortu zuen Jara pertsonaia, hasieratik bertatik euskal nerabeen artean izugarrizko arrakasta lortu zuena. Ordutik hona, Jararen inguruko hiru liburu ondu ditu Osorok: *Jara* (lehenengoa) *Jara, bikiak eta bikoteak* (bigarrena) eta *Jara Bartzelonan* (hirugarrena). Liburu hauek hainbat sari eta aipamen jaso izan dituzte dagoeneko: Liburu Gaztea, JUUL sariak... Eskuaratean duzun *Jara live* hau saileko laugarrena da, eta Jara pertsonaia karismatikoaren abentura berri eta kilikagarritz beteta dator.

Liburua

Aurreko ikasturteko nota txarrak direla eta, aurtengo udan, Jara zigortuta geratu da Bartzelonan. Hala ere, urtero Lekeition izan ohi den Gazte kanpaldira gonbidatuko du Ihintzak eta Jararen harriidurarako, gurasoek baimena eman diote. Bertan, musika eta gitarra akordeen artean hainbat egoera berri biziko ditu: gurasorik gabeko opor txikiak, abeslari famatuak, maitatzeko modu desberdinak... Jarak lagun berriak egingo ditu, eta pertsonaia horiek burua eta bihotza, biak nahasiko dizkio: Posible al da bera baino hamar urte zaharragoa den mutil batek erakartzea? Eta bat-batean neska batengatik erakarria sentitzea? Zein da benetan maite duen mutila? Zer egin zure lehenengo maitasuna oraindik ahaztu ez duzula ohartzean? Unean-unean sentitzen duena egitea zilegi al da? Zeini egin kasu, bihotzari ala buruari?

Zergatik irakurri liburu hau?

Zalantzak, maiteminak, haserreak, pozak eta tristurak... Kontakizun errealista honek bizitzaz gozatu nahi duen gazte talde baten bizipenak kontatzen ditu. Liburuak oso ondo islatzen du gazteen mundua, haien hizkera, haien interesak eta kezkak eta familiarekiko nahiz lagunekiko harremanak. Protagonistak DBHko ikasleak dira; ikasleek erraz identifikatuko dute beren burua haiekin. Jara eta gainontzeko pertsonaien ekintzak behatuz eta baloratuz, beren buruaz eta inguruneaz hausnarketa egitea ahalbidetuko die ikasleei.

Jararen munduan sartzen diren irakurleak, nekez irtengo dira bertatik haren hurrengo abentura irakurtzeko irrika bizia sentitu gabe. Hain da erakargarria nerabeen mundu gorabeheratsua!

Liburuak gaitasunen garapenari egiten dion ekarpena

ARLOKO GAITASUNAK

Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna

Hainbat euskarritan dauden idatzizko testuak ulertzea eta interpreta-tzea; musika-jaialdien kartelak, adibidez.

Tresna digitalak erabiltzea (sakelakoa, posta elektronikoa...), idatzizko testuak ulertu eta sortzeko.

Hizkera formala eta lagunartekoa bereiztea eta bakoitza dagokion esparruan erabiltzea, eta euskarak lagun artean komunikatzeko baliabideak eskaintzen dituela ulertzea.

Zientziarako gaitasuna

Gizakiaren ongizaterako eta gaixotasunen prebentziorako ohitura osasungarriak. Adikzioek pertsonen garapenean dituzten ondorio kaltegarriak eta tabakoaren, alkoholaren eta beste substantzia batzuen kontsumoaren prebentzioa.

Gizakiaren sexu eta sentimenduen bereizketak eragiten dituen desirak eta interesak kontuan hartzen dituen harremanen eta sexu-jokabidearen garapena.

Arterako gaitasuna

Musika gozamen-iturritzat hartzea.

Musika mota ezberdinak eta zenbait euskal musika-talde ezagutzea.

Zuzeneko kontzertuetara joatea eta ikasitakoan oinarritutako iritzi-trukeak izatea.

ZE HAR-GAITASUNAK

Elkarbizitzarako gaitasuna

Norberaren portaerak giza eskubideen oinarrian dauden printzipio etikoen gainean eraikita egotea.

Irakurleek ulertzea ezin dela inor torturatu edo baztertu bere jatorria, ekonomia-maila, sexu-orientazio, larru-kolorea edo erlijioagatik.

Desadostasun- edo liskar-egoera elkarriketaren eta negoziazioaren bidez konpontzea.

Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna

Nork bere ikaskuntza antolatzea eta denbora eta informazioa eraginkortasunez kudeatzea. Noizbehinka ikasketetatik deskonektatzea garrantzitsua dela ohartzea.

Izaten ikasteko gaitasuna

Erabakiak hartzean, ekintzen ondorioak bere gain hartzeko ardura garatzea.

Autoestimua garatzea, hau da, norbere buruaren gaineko balioespen positiboa eta errealista.

Autonomia garatzea, erabaki pertsonalak hartu eta gauzatzeko ahalmen gisa ulertuta, eta norberaren ekintzen eta bizitzaren erantzule izanda.

Balioetan hezte

Eleberriko pertsonaiek bizitzaz gozatu, momentua bizi eta sentitzen dutena egiteko aske sentitu nahi dute. Hala ere, erabakiak hartzean, erabaki horiek ondorioak izango dituztela eta beste pertsona batzuk ere mindu ditzaketela ikasiko dute. Maitasun-jolasetan, gauzak ez dira beti diruditen, eta besteen begiraden esanahia ulertzen eta ondo neurtzen jakin behar da. Maitasun-jolasetan dabilenak, une gozoak eta gaziak biak biziko ditu, eta bietan adiskideak alboan izatea zeinen garrantzitsua den egiaztatu ahal izango du Jarak. Biziko dituen egoera berriek bere burua hobeto ezagutzen eta pertsona bezala hazten lagunduko diote.

JARDUEREN PROPOSAMENA

Irakurri eta ulertu

Liburuaren izenburua · 1. jarduera

Denok batera liburuaren azala irakurtzea iradokitzen dugu, ikasleak beste adierazpen-hizkuntza batzuekin treba daitezen, zehazki hizkuntza piktorikoarekin: Zer irudi aukeratu da? Zer kolore dira nagusi? Egokia iruditzen al zaie eleberriaren edukia adierazteko?

Ondoren, izenburuari erreparatzeko eskatuko diegu. Zer adierazi nahi izan du idazleak izenburu horrekin? Galdera horri erantzun ondoren, argumentua eta *Jara* saileko gai-nontzeko liburuaren izenburuak kontuan hartuta, beste izenburu bat asmatuko dute.

Jara · 2. jarduera

Jararen abenturak hasieratik jarraitu dituzten irakurleek, honezkero ondo baino hobeto ezagutuko dute Jara. Ikasleei Jara deskribatzen duten adjektiboak esateko eskatuko diegu eta guztien artean, Jararen erretratua osatuko dute: Nolakoa da Jara? Zein dira, zuen ustez, bere bertuteak? Eta ahulguneak?

Jarduera honetan, Jararen izaera agerian uzten duten hiru pasarte azaldu beharko dute ikasleek.

Harremanak · 3. jarduera

Jara eta Ihintza, Ihintza eta Irma, Irma eta Ainhoa, Ainhoa eta Jara... Zeinen nahasia eta konplexua den batzuetan pertsonen arteko harremana! Jararen abentura berri honek, hainbat harreman mota ezberdin erakusten dizkigu: lagun minen artekoa, ezagutu berri direnen artekoa, gurasoen eta alabaren artekoa, bikoteko bi kideen artekoa, erakarriak sentitzen diren pertsonen artekoa...

Zenbait pasarte aztertuz, liburuko pertsonaiek beraien artean duten harremana nolakoa den azaltzea proposatzen diegu ikasleei.

Gogoetak · 4. jarduera

Liburuaren egiturari buruz hitz egingo dugu ikasleekin. Guztion artean, eleberriaren garapenean funtsezkoak diren gertakariak banan-banan aipatu eta aztertuko ditugu.

Jararen bihotza nahasia eta zalantzaz beterik dago. Erabaki bat hartu edo egoera berri bat bizi duen aldiro gogoeta sakonak egiten ditu. Jarduera honetan, eleberriko zenbait gertakariaren aurrean Jarak zer jarrera duen azalduko dute ikasleek. Honek, liburuaren egitura hobeto ulertzen lagunduko die.

Ikasitako irakaspenak · 5. jarduera

Jara umetik heldura saltoa ematen ari da. Uneoro zalantza eta egoera berriei aurre egin beharrean aurkitzen du bere burua. Erabakiak hartu eta erabaki horien erantzukizuna bere gain hartzen, bere burua ezagutzen eta pertsona bezala hazten ari da.

Lekeition bizi izandako asteburua ezin hobea izan da. Bartzelonatik atera zenean ez zuen uste hainbeste gauza gertatuko zitzaizkionik! Hamaika abentura bizi izan ditu: haserreak,errietak, bizipen berriak, Gari, Irma eta Ainhoa, Urko... Zer ikasi ahal izan du Jarak asteburu intentso horretan? Zer irakaspen daramatza maletan gordeta etxera bueltako bidaian?

Haluzinantea! · 6. jarduera

Saileko beste liburuetan bezala, Jasone Osorok oso ondo islatzen du gazteen hizkera. Lagunarteko erregistroa darabil, gazte hizkera, eta elkarrizketa bizi-biziak. Hizkera mota honi buruz hitz egingo dugu ikasleekin: Zuen ustez, idazleak ongi islatzen du gazteen hizkera? Hizkera horretan zuen burua islatuta ikusten al duzue? Ondoren, egoera bakoitzak erregistro bat eskatzen duela eta egoera horretara hobekien egokitzen dena aukeratu behar dutela gogoraraziko diegu.

Jarduera honetan, elkarrizketa hauetatik ateratako zenbait esaldi erregistro jasoa-goia erabiliz berridatziko dituzte.

Euskarak lagunekin solasean aritzeko hainbat baliabide eskaintzen baditu ere, gazteek askotan gaztelaniara jotzen dute lagunartean aritzen direnean. Lehiaketa bat egitea proposatuko diegu, une dibertigarri bat pasatzen duten bitartean zenbait hitz eta esamolde barnera ditzaten. Ikasleak hiru taldetan banatuko ditugu, eta galdera luzatuko diegu. Esaterako, maitasun eta ligatze kontuekin gabiltzanez: Nola esaten diozue itxura oneko neska edo mutilari? Talde bakoitzak ahalik eta zerrenda luzeena idatziko du: neska/mutil katxarroa, neska/mutil trastea, etxera eramateko modukoa, larru onekoa... Zerrenda luzeena (fundamentuzkoa izan behar du) osatzen duen taldeak puntu bat eramango du. Honako galderak egin daitetzke: Nola esaten duzue norbaitek norbait oso gustuko duenean? Atzetik ibili, lerdea dariola egon, begiz joa eduki, txolinduta egon... Nola esaten diozue ligatzen saiatzeari? Eraso bota, katotan ibili... Nola esaten diozue sexu jolasetan aritzeari? Kateatu, lardaskan aritu, ohean borrokatan aritu... Lehiaketa amaitzean puntu gehien lortu duen taldeak irabaziko du.

Poeta naiz · 7. jarduera

Idazleak oso modu poetikoan deskribatzen ditu liburuko pertsonaien sentimenduak, konparazio eder eta landuak erabiliz. Ikasleek ulertu dituzten frogatuko dugu jarduera honetan. Ikasleek lan bikoitza izango dute: batetik, esaldiak irakurri eta zer esan nahi duten ulertzea; eta, bestetik, sentimendu bera adierazteko antzeko esaldiak asmatzea.

Lanean hasteko zailtasunak dituztela ikusten badugu, jarduera hobeto uler dezaten, lehen esaldirako adibideak eman genitzake: Abentura hasi zen eta 100 metroko zubitik puenting-a egitean izango luketen sentsazio bera zuten sabelean; Abentura hasi zen eta sabelean dozena bat skater arrapalan gora eta behera zebiltzala sentitzen zuten,...

Ikertu

Euskal Herriko jaialdiak

Jararen abentura berria urtero Lekeitio eta Mendexa artean egiten den Gazte Kanpaldietan kokatzen da. Hasteko, jaialdi hau benetakoa ala idazleak asmatutakoa den ikertzea proposatuko diegu ikasleei. Horretarako, jaialdiari buruzko informazioa lortzea eskatuko diegu (Interneten, ingurukoei galdetuz...).

Ondoren, Euskal Herrian antolatzen diren antzeko jaialdiak aztertuko dituzte. Ikasleak bosnaka banatuko ditugu. Denen artean jaialdi bat adostu eta hari buruzko informazioa bilatu beharko dute. Euskal Herrian asko dira urtero antolatzen diren jaialdiak: musika-jaialdiak (Bilbao BBK Live, Azkena Rock Festival, Gasteizko, Getxoko eta Donostiako Jazzaldiak...), antzerki-jaialdiak (Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdia, Lekeitioko Kale Antzerki Jaialdia...), dantza jaialdiak (BAD jaialdia, Maitaldia jaialdia...), zinema jaialdiak (Donostiako Zinemaldia, Zinegoak, FANT...)... Talde bakoitzak lortutako informazioa landuko du, eta ikaskideen aurrean azalduko.

Euskal Herriko uharteak

Jarak eta Ihintzak Karraspio hondartzako pasabidea zeharkatu eta San Nikolas uhartera abiatu dira. Uharteak leku misteriotso eta erakargarriak dira, eta gurean, etxetik oso urruti joan gabe, makina bat aurki daitezke.

Ikasleak taldeetan banatuta, Euskal Herrian diren uharten inguruan ikerketa egitea proposatuko diegu ikasleei. Guztien artean erakargarria iruditzen zaien bat aukeratu eta hainbat iturri erabiliz (entziklopediak, webguneak, turismo-bulegoak...) informazioa bilduko dute: Non dago? Zenbat neurtzen du? Nolako itxura du? Nola iritsi daiteke bertaraino? Zer aurkituko du uhartera iristen denak?

Talde bakoitzak informazioa landuko du (testua, argazkiak...), eta gainontzeko ikasleei bildutakoa erakutsiko die.

Eztabaidatu

Leialtasuna

Abentura berri honetan, leialtasuna da gai nagusietako bat. Liburuko pertsonaiek asko estimatzen duten balioa da, eta horrek makina bat buruhauste eragiten dizkie: batetik, ongi jokatu eta bikotearekiko leialak izan nahi lukete; bestetik, bizitza gozatu eta sentitzen dutena egiteko aske izan nahi dute. Buruari ala bihotzari, zeini egin kasu?

Liburuko 71. orrialdeko pasarte hau irakurriko dugu:

«Kaos hutsa zen bere burua. Arrazoia eta pasioa elkarren artean borrokan zeuden. Oriol eta Gari. Gari eta Oriol. Bartzelonarrak maitasuna eta oreka ematen zizkion. Garik une hartan pasioaren intentsitatea eskaintzen zion. Biak ere hain desiragarriak...».

Eztabaida pizteko, honako galderak egingo ditugu:

- Zuen ustez, nola sentitzen da Jara? Ongi jokatzeko ari dela uste duzue? Zer egingo zenukete zuek haren lekuan egon bazinate?
- Batetik hamarrera, zer garrantzia ematen diozue leialtasunari? Zer iritzi duzue harreman irekien inguruan? Funtziona dezakeela uste duzue?
- Gizakia berez dela desleiala esaten da. Ados al zaudete?

Eta behin pasioak borroka irabazita, nola jokatu? Eztabaidari amaiera emateko, liburuko 101. orrialdeko Jararen gogoeta hau irakurriko dugu, eta ikasleei zer irizten zaien galdetuko diegu:

«Horiek guztiak kontatu behar al zizkion? Bikote batek iraungo badu, sekreturik ez egotea komeni da. Edo bai? Den-dena jakitea ere ez da ona. Zertarako esan behar dira egia guztiak?».

Amaitzeko, banan-banan aipatuko ditugu taldeak ateratako ondorioak.

Maitasunak ez du adinik, ezta sexurik ere

Jara eta Ihintza beraien adin bueltako mutilekin jolasean aritzera ohituta daude. Lekeition topatu eta sentitu dutenak, aldiz, zer egin ez dakitela utziko ditu. Jarak Gari ezagutu du, bera baino hamar urte zaharragoa den mutila. Ihintzak, berriz, Irma, neska bat.

Liburuko 36. orrialdeko pasarte hau irakurri eta hausnartuko dugu:

«—Bai, bikotea gara. Arraroa egiten al zaizu?
—Ez, ez, ondo iruditzen zait —urduri jarri zen. Naturala izan nahi zuen, baina ez zekien nola.

—Lasai, normala da. Oraindik ere, jendea ez dago lesbianak ikusten ohituta
—azaldu zuen Ainhoak».

Jararen erreakzioari buruz hitz egingo dugu. Natural jokatu nahi du, baina ezin du harridura ezkutatu. Jararen lekuan jartzeko eskatuko diegu: Nola erreakzionatu du Jarak? Eta Irmak eta Ainhoak? Jararen erreakzioak mindu egin dituela uste duzue? Jarri Jararen lekuan, nola erreakzionatuko zenukete zuek? Sexu bereko harremanak gizartean normalizatuta daudela uste duzue? Belaunaldien artean desberdintasunak daudela esango zenukete?

Eztabaidarekin jarraituko dugu. Jarari Gariren adina da beldurra ematen diona. Hogeita bost urte ditu, berak baino hamar gehiago. Honako galderak proposatuko dizkiegu ikasleei: Hamar urte asko direla uste duzue? Zergatik uste duzue ematen diola Jarari beldurra? Ikusten al duzue zuen burua zuek baino hamar urte nagusia goa den pertsona batekin? Ezagutzen dute beraien artean adin tarte handia duen bikoterik? Bikotekideen arteko adin diferentzia handia bada ondo joan al daiteke harremana?

Maitasunak ba al du adinik? Eta sexurik? Ahalegina egingo dugu ikasleek iritzi guztiak entzun eta errespetuz adieraz ditzaten. Amaitzeko, banan-banan aipatuko ditugu taldeak ateratako ondorioak.

Sortu

Eta Urko garaiz iritsi balitz?

Liburuaren amaieraz hitz egingo dugu ikasleekin. Jarak eta Urkok sentitzen dutenaz hitz egin nahi dute, baina beldurra eta harrokeria lehenik eta patua ondoren, ez dute horretarako aukerarik izan. Beste amaieraren bat espero zuten galdetuko diegu ikasleei, eta Jarak parentesia itxi eta Urkori ez deitzeari buruz hartutako erabakia zer irizten zaien galdetuko diegu.

Liburuaren argumentuarekin eta pertsonaien izaerarekin bat datorren amaiera berri bat asmatzea proposatuko diegu ikasleei. Jarduera honi esker, ikasleak pertsonaien lekuan jarri ahal izango dira. Ez dute testua garatu beharrik, egoera bat aukeratu eta egoera berri hori kontuan hartuta argumentuak zer bide hartuko lukeen azaltzen duen gidoi edo eskematxo bat eginda nahikoa izango da:

- Zer gertatuko litzateke Urkoren neska-laguna Anabasan agertu ez balitz?
- Zer gertatuko litzateke Urko aireportura garaiz iritsi eta Jara oraindik bertan aurkitu balu?
- Zer gertatuko litzateke Jarak Orioli telefonoz deitu ziona Urko izan zela ezkutatu ez balio?
- Zer gertatuko litzateke Jarak Urkori deia erantzun balio?

Eko-kanpaina

Liburuko 57. orrialdeko pasarte hau irakurriko dugu:

- «Kanpadenda ireki zutenean aurkitu zutena ez zitzaien batere gustatu.
 —Zer da hau? —esan zuen ozen Jarak.
 —Hau kaka mordoa!
 Inguru guztia plastikoz, paperez eta lataz beteta zegoen.
 —Baina... jendeak ez du kontzientzia ekologikorik? —haserretu zen Jara».

Kanpina hain zikin ikustean, Jarak antolatzaileekin hitz egitea erabaki du. Bere helburua kontzertuak aprobetxatuz jendearen kontzientzia ekologikoa zertxobait piztea da.

Ikasleei proposatuko diegu, Lekeitiokoaren antzeko jaialdi jendetsuetan kontzientzia ekologikoa pizteko ekintzak asmatzea. Jaialdi handi hauek denonak diren ingurune baliotsuetan antolatu ohi dira (mendiak, hondartzak...) eta, beraz, guztion ardura da errespetuz jokatu eta zaintzea. Pista bezala, honako galderak egingo dizkiegu:

- Zer egin daiteke jendeak zaborra lurrera bota beharrean zaborrontzira botatzeko? Zer egingo zenukete plastikozko edalontzi gutxiago kontsumitzeko? *Adibidez, zaborrontzi gehiago eta birziklatzekoak jarri, edalontzi berrerabilgarriak erabili, lehiaketa bat antolatu eta kanpin ingurua txukunena duenari beren talde gogokoena ezagutzeko aukera eman...*
- Zer ekintza antolatuko zenukete jaialdian izan direnen kontzientzia ekologikoa pizteko? *Adibidez, arropa zaharberrituaz egindako moda desfilea, zaborrarekin bitxiak egiten ikasteko tailerra, zaborarrekin egindako instrumentuez osatutako musika-taldearen kontzertua, bizikleten pedalei emanaz energia sortzeko gunea...*

Mezua gazteengana ongi iris dadin, burmuina estutu eta ahalik eta originalenak izatea eskatuko diegu.

Kronika

Ikasleak musika-kazetari bihurtuko ditugu. *Austrolopitekus* talde hasiberriak emandako kontzertuaren kronika idaztea proposatuko diegu ikasleei. Behar izanez gero, *Austrolopitekus urakana* kapitulua (60-64. or.) berriz irakurriko dute, xehetasun guztietan erreparatuz: zer nolako musika egiten duten, kontzertua zer ordutan hasi den, zenbat jende bildu den kontzertua ikusten, zer giro sortu duten, publikoa dantzarazi badute edo ez, ezusteko gonbidatuak, haize bortitzak eragindako kalteak... Datu hauek guztiak baliatuz, kontzertuaren kronika bat idatziko dute. Zailtasunak badituzte, adibide gisa beste kronika batzuk irakur genitzake lanean hasi aurretik.

IZENA: MAILA:

JARA LIVE

Jasone Osoro

1. Liburuaren izenburua

Liburu honek izenburu bitxia du. Azaldu idazleak zer adierazi nahi izan duen *live* hitzarekin eta adierazi egokia iruditzen zaizun ala ez. Ondoren, asmatu kontakizunarekin bat datorren beste izenburu bat.

.....

.....

.....

.....

.....

2. Jara

Nolakoa da Jara? Azaldu, zure hitzak erabilita, Jarari buruzko pasarte hauek.

- «Jarak ohitura zuen gauza onak hazten diren zelaian arantzadun arrosa ere loratzen dela pentsatzeko». (32. or.)

.....

.....

.....

- «Batuetan iruditzen zitzaion amatxo batek bezala jokatzeko zuela Ihintzarekin». (61. or.)

.....

.....

.....

- «Ba nazkatu naiz beti zintzoa eta arrazionala izateaz. Nazkatu naiz besteen aurrean neska perfektua izateaz. Nazkatu naiz beti besteek zer esango ote duten pentsatzen egoteaz». (70. or.)

.....

.....

.....

IZENA: MAILA:

JARA LIVE

Jasone Osoro

3. Harremanak

Pertsonen arteko harremana da liburuaren gai nagusienetako eta korapilatsuenetako bat. Irakurri arretaz liburutik ateratako pasarte hauek eta azaldu zer-nolako harremana duten pertsonaiek.

- **Jara eta Ihintza:** «Elkarren osagarriak ziren, bati falta zitzaiona besteak zuen. Bien artean, gizaki perfektua osatzen zuten, ia perfektua». (39. or.)

.....

.....

.....

.....

- **Jara eta Oriol:** «... gustatu egiten zitzaion Oriolek ematen ziona. Berezia sentitzen zen harekin zegoenean, maitatua sentitzen zen, eta horrek munduan edozer egiteko gai zela sinestarazten zion». (100. or.)

.....

.....

.....

.....

- **Jara eta Gari:** «Arreba hitza erabili zuen Garik eta min egin zion Jarari. Baina, bestetik, liberatuta sentitu zen eta musua eman zion masailean». (78. or.)

.....

.....

.....

.....

- **Jara eta Urko:** «Buruak esaten zion hobe zuela Bartzelonara itzuli eta asteburuan gertatutako guztia ahaztu. Bihotzak, berriz, ziztada txikiak egiten zizkion, Urkok bere Whatsapp erantzuten ez zuelako». (89. or.)

.....

IZENA: MAILA:

JARA LIVE

Jasone Osoro

3. Harremanak (jarraipena)

.....

.....

.....

.....

- **Ihintza eta Irma:**

- «—Gustatu egiten zait.
- Gutizia hutsa da, Ihintza, onar ezazu.
- Oraindik ez dakit zer den». (61. or.)

.....

.....

.....

.....

- **Jara eta Ainhoa:** «Irma zain zeukan, begira. Sandwich baten erdian harrapatuta sentitu zen. Berak bilatu gabekoa izan zen musua. Mendekuzaporea zeukan patxoa». (83. or.)

.....

.....

.....

.....

- **Jara eta gurasoak:** «Zeinen ezberdinak ziren ama eta aita. Bata beti kontuz ibiltzeko esaten. Aita, berriz, ondo pasatzeko eta disfrutatzeko. Eta biek zuten arrazoi puntua. Oreka lortzen zuten bien artean, eta Jarak beharrezko zuen hori. Gozatu eta mugatu, biak ziren jarraitu beharreko aholkuak». (23. or.)

.....

.....

.....

.....

IZENA: MAILA:

JARA LIVE

Jasone Osoro

4. Gogoetak

Jarak bizi dituen gertakarien inguruan hausnarketa sakonak egiten ditu. Gogoratu Jarak gertakari hauen inguruan egindako gogoetak, eta azaldu zeure hitzak erabili-
lita edo liburutik kopiatuta.

- **Ihintzak eskatuta, amak Lekeitiora joateko baimena eman dio Jarari.**

.....

.....

.....

- **Oriolek Lekeitiora berarekin joatea proposatu dio.**

.....

.....

.....

- **Jara eta Ihintza muturtu egin dira.**

.....

.....

.....

- **Jara Garirekin geratu da.**

.....

.....

.....

- **Jarak Urkorekin hitz egitea erabaki du.**

.....

.....

.....

IZENA: MAILA:

JARA LIVE

Jasone Osoro

5. Ikasitako irakaspenak

Jarak aspaldiko egunik intentsoenak igaro ditu Lekeition. Hamaika abentura bizi eta hamaika gauza ikasteko aukera izan du. Idatzi asteburu horretatik atera dituen hiru irakaspen.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

6. Haluzinantea!

Liburuko pertsonaiak gazteak dira eta oso hizkera bizia darabilte. Berridatzi haiek esandakoak erregistro jasoagoa erabiliz.

—Ba, hau bonbazoa esan behar dizudana... Flipatu egingo duzu.

.....

—Mundial pasatuko dugu!

.....

—Aizu, Jara, mutil katxarro mordoa ikusi dut Berri Txarrak-en kamisetarekin.

.....

—Haluzinantea! Zuk bai zortea!

.....

—Ikusi al duzu zeinen estupendisima dagoen Irma bikinian?

.....

IZENA: MAILA:

JARA LIVE

Jasone Osoro

7. Poeta naiz

Narratzaileak oso modu poetikoan deskribatzen ditu liburuko pertsonaien sentimenduak. Irakurri arretaz esaldi hauek, eta asmatu antzeko esaldiak pertsonaiak une horretan nola sentitzen diren adierazteko.

- Abentura hasi zen eta **bihurgunez betetako errusiar mendi batek bezalako kilimak eragiten zizkien neskei sabelean.** (32. or.)

.....
.....

- Oriolen izena Jararen bihotzetik **klariona arbeletik bezain erraz ezabatu zen.** (68. or.)

.....
.....

- **Katu batek hanka artean hartzen duen haria** baino nahasiago zegoen Jararen bihotza. (86. or.)

.....
.....

- Jarak, une hartan, whatsapp bat jaso zuen. **Bihotzean zaldi-lasterketa igarri zuen.** (89. or.)

.....
.....

- Mahai azpian ezkutatu nahi zuen. **Txiki-txiki bihurtu eta oinetakoen barruan gorde.** (94. or.)

.....
.....

- **Negarra ehun kiloko harria zen Jararen eztarrian.** (96. or.)

.....
.....

IZENA: MAILA:

JARA LIVE

Jasone Osoro

Irakurmen-testa

Galdera hauetako bakoitzean, aukeratu egokia iruditzen zaizun erantzuna, eleberria ondo ulertu duzun ikusteko.

1. Oriolek Jarari Lekeitiora joateko asmoa erakutsi dio. Zergatik ez da joan azkenean?

- a** Plan ezkutu baten bitartez, Ihintzak asteburuan herriko lagun guztiak elkartu eta lekuz kanpo egongo dela sinestarazi diolako.
- b** Unibertsitateko lagun batekin egin duten erakusketa prestatzeko geratu delako.
- c** Bera han egon gabe Jara gusturago ibiliko dela ohartu delako.

2. Nola ezagutu dute elkar Jarak eta Garik?

- a** Bartzelonatik Bilborako hegaldian elkarren ondoan jesarrita joan dira eta solasean aritzeko aukera izan dute.
- b** Fitoren kontzertuan Garik bultza egin dio nahi gabe, eta hizketan hasi dira.
- c** Garik kanpadenda muntatzen lagundu die.

3. Ihintza esku-ohean atera dute Fitoren kontzertutik. Zer gertatu da?

- a** Jende-oldea sortu da eta Ihintza jende azpian harrapatuta geratu da.
- b** Fito ikustearen emozioz zorabiatu egin da.
- c** Ihintzak ilaran orduak zain eman dituztenei aurea hartzen saiatu da eta jipoitu egin dute.

4. Beste une batean, zenbait pertsona kontzertu-esparruko zaborrontziak iraultzen eta dirua bueltatzeko eskatzen hasi dira. Zergatik daude haserre?

- a** Egitaraua bertan behera geratuko dela uste dutelako, izan ere, haize-erauntsi batek agertokia estaltzen zuen teilatua kili-kolo utzi du.
- b** Austrolopitekus taldearen kontzertua osorik ikusi ezin izan dutelako.
- c** Edari eta janarien prezioak oso garestiak direla iruditzen zaielako.

IZENA: MAILA:

JARA LIVE

Jasone Osoro

5. Jarak abeslari famatu bat gertutik ezagutzeko aukera izan du. Nor ezagutu du?

- a** Berri Txarrakeko abeslaria, hegazkinean.
- b** Fito, kamerinoan.
- c** Doctor Deseoko abeslaria, Karraspio hondartzan.

6. Ihintzak Irmarekiko interesa agertu du, Irmak, ordea,...

- a** ... bere begiradak gaizki ulertu dituela azaldu dio.
- b** ... Jarari bota dio begia.
- c** ... berarentzat umeegia dela esan dio.

7. Zergatik egin du Ainhoak Ihintzaren aurkako graffitia?

- a** Bere neska-lagunarekin enroilatu delako eta haserre dagoelako.
- b** Irma Ihintza besarkatzen ikusi duelako eta besarkada gaizki interpretatu duelako.
- c** Irmaren mugikorrean bere whatsappak bilatu dituelako.

8. Ihintzak ez du begi onez ikusten Jarak Garirekin batzeko duen asmoa. Zergatik?

- a** Oriolekin gaizki jokatzeko ari dela uste duelako.
- b** Berari ere Gari gustatzen zaiolako eta jeloskor dagoelako.
- c** Garik 25 urte dituelako.

9. Zergatik ez du erantzun Urkok Jararen whatsapp?

- a** Une horretan ez zuelako astirik eta gero ahaztu egin zaiolako.
- b** Harrokeriagatik eta maite duela esateko adorerik izan ez duelako.
- c** Beste neska batekin dagoelako.

10. Jarak Urkori deia ez itzultzea erabaki du. Zergatik?

- a** Anabasan berarekin izandako portaeragatik haserre dagoelako.
- b** Oriolek Urkorekin hizketan harrapatzeko beldur delako.
- c** Bartzelonara iristean bertan duena izugarri balioztatzen duela konturatu delako.

Erantzunak

JARA LIVE

Jasone Osoro

1. Liburuaren izenburua

E.E.: Ingeleseko *live* hitzak zuzeneko esan nahi du, eta oso erabilia da musikaren munduan: zuzeneko diskoen izenetan, jaialdien izenetan (Bilbao BBK Live, esaterako)... Kontakizuna musika-jaialdi batean kokatzen da eta gainera, idazleak Jarak eta Ihintzak asteburu horretan bizitakoaren xehetasun guztiak kontatzen dizkigu, gertatzen dena zuzenean kontatzen egongo balitz bezala.

2. Jara

E.E.: Jara nahiko ezkorra da, guztiari aurkitzen dio alde txarren bat.

Jara arduratsua da, eta Ihintza, grinatsua. Burua eta pasioa. Horregatik, askotan, Ihintza sekula haziko ez den ume handia dela eta berari umea zaintzea tokatu zaiola sentitzen du.

Jara neska arduratsua da, eta Ihintzari zer edo zer egiteko asmoa duela kontatzen dion bakoitzean, Ihintzak bera neska zintzoa dela eta berak hori ezin duela egin gogoratzen dio. Jara nazkatuta dago, berak ere bizitza gozatu eta sentitzen duena egiteko aske izan nahi du.

3. Harremanak

E.E.: Jara eta Ihintza: Jara eta Ihintza lagunak dira txiki-txikitatik. Elkarren artean oso desberdinak dira, eta horren ondorioz, askotan sesioan aritzen dira. Ihintza kartsua eta grinatsua da eta Jara zentzuduna. Jarak, batzuetan, Ihintza izan nahi izaten du. Ihintzak, tarteka, Jara bezalakoa izan nahi izaten du. Elkarren artean oreka lortzen dute. Jarari Ihintza askotan gogaikarria egiten bazaio ere ikaragarri estimatzen du, badaki munduan ez dela Ihintza bezalako lagun onik.

Jara eta Oriol: Jarak oraindik ez du Urko guztiz ahaztu, eta gainera, batzuetan beste mutil batzuk ere erakarri egiten dute. Hala ere, Oriolekin gustura dago, eta berarekin dagoenean zalantza guztiak uxatzen zaizkio. Mutil azkarra, jatorra, zintzoa, leiala eta pertsona garbia dela iruditzen zaio, eta ondo sentiarazten dio.

Jara eta Gari: Garik Jara erakarri egiten du, eta horrek buruhausteak besterik ez dizkio ematen: Oriolekiko dituen sentimenduak zalantzan jartzen ditu eta gaizki jokatzeko ari dela iruditzen zaio. Gainera, bera baino hamar urte zaharragoa da eta

Erantzunak

JARA LIVE

Jasone Osoro

horrek beldurra ere ematen dio. Garik arreba edo lagun gisa ikusten duela esateak sentimendu kontraesankorrak eragin dizkio: batetik, mina, eta bestetik liberazioa, horrek arazo guztiak kolpean konpontzen dituelako.

Jara eta Urko: Urko Jararen lehenengo maitasuna da, eta ez da bera ahazteko gai izan. Bartzelonan bizitza berri bat dauka eta gustura dago, baina Urko bihotzean du oraindik. Buruak Bartzelonako bizitzarekin jarraitu eta Urko ahazteko esaten dio, baina behin lehen pausua eman eta Urkori mezua bidalita, hark kasurik ez egiteak min egiten dio.

Ihintza eta Irma: Ihintzarentzat bikote homosexualen kontua berria da, eta horrek jakin-mina piztu dio. Kuriositate horrek liluratuta, Irmak modu berezian begiratu diola begitandu zaio. Nahastuta dago eta ez daki zer pentsatu: gustuko du benetan ala kapritxo hutsa da?

Jara eta Ainhoa: Ainhoak ez du ahaztu Irmaren eta Ihintzaren arteakoa. Irmak gertatu zena argitu badio ere, mendeku gisa Jarari musu eman dio bere musturren aurrean. Zigor txiki bat.

Jara eta gurasoak: Jarak harreman ona du gurasoekin. Oso ezberdinak dira, baina biek ematen dizkiote beharrezko aholku baliagarriak.

4. Gogoetak

Jara amorratuta dago: Niretzat garrantzitsua da. NEURE gurasoak dira. NEUK eskatu behar diet baimena. Eta NEURI esan behar didate baietz. (20. or.)

Oriol ere bai? Hori ez zegoen Jararen planetan. Are gutxiago, Ihintzaren buruan. Ihintzak libre ibili nahiko zuen, biak eskuz esku. Mutilak ezagutzen, dantzan, barez... Eta Jarak ere, aukeran, nahiago zuen hiru egun horietan mutil-lagunik gabe egon. Ai ama! Dena konplikatzen ari zen. (13. or.)

Ihintza kanpadendan lagata kontzertuen aretoan bakarrik sartzeak indartu egin zuen. Ausarta sentitu zen erabaki hori hartu zuelako. Behingoagatik Ihintzari ahoa itxi ziolako, errieta egin eta, horrez gain, festarekin jarraitzea erabaki zuelako. Berekoia zela pentsatuko zuen Ihintzak seguruenik, eta benetako lagun batek ez lukeela haren ondotik alde egingo. Baina berdin zion. (42. or.)

Erantzunak

JARA LIVE

Jasone Osoro

Luze egin zitzaion denbora Jarari, Gariren deia iritsi zen arte. Une batzuetan uste zuen ez ziola deituko. Besteetan, deitu arren ez zela joango agintzen zion bere buruari. Eta azkenean, Ihintzaren hitzak etortzen zitzaizkion burura eta Garirekin geratu behar zuela konbentzitzen zuen bere burua. Kaos hutsa zen bere burua. (71. or.)

Urkori esan nahi zizkion guztiak ordenatu zituen. Ez zekiela zer gertatzen zitzaien. Sentitzen zuela bat-batean agertzea. Ez ziola bihotza nahasi nahi. Bazekielako neskaren batekin zegoela. Berak ere bazuela mutil-laguna Bartzelonan, baina... Baina Lekeition zerbait sentitu zuela, bere benetako maitasuna galtzear balego bezala. Hegazkina hartu aurretik Urko ikusteko beharra sentitu eta horregatik zegoela han, kaka eginda, urduri, txiki-txiki. (93. or.)

5. Ikasitako irakaspenak

E.E.: 1. Oriol estrategiarik eta gezurrik esan gabe ohartu zen Jarak nahiago zuela bakarrik joan Lekeitiora. Azpilanetan ibili beharrean, hurrengoan Orioli egia esango dio hasieratik.

2. Besteak ez epaitzen ikasi du. Irmak bikotea zuela eta haien harremanean ez sartzeko esan zion Ihintzari. Gero, berak ere bikotea izan arren, Garirekin eta Urkorekin gelditu zen.

3. Bartzelonan zeukan bizimodua balioztatzen ikasi du: gurasoen babesean, Oriolek ematen zion maitasunarekin eta Ihintzak distantziatik eskaintzen dion mugarik gabeko adiskidetasunarekin.

6. Haluzinantea!

E.E.:

—Sekulako albistea eman behar dizut... Zur eta lur geldituko zara.

—Ikaragarri ongi pasatuko dugu!

—Aizu, Jara, mutil eder mordoa ikusi dut Berri Txarrak-en kamisetarekin.

—Harrigarria! Zuk bai zortea!

—Ikusi al duzu zeinen lirain dagoen Irma bikinian?

Erantzunak

JARA LIVE

Jasone Osoro

7. Poeta naiz

E.E.: Abentura hasi zen eta 100 metroko zubitik puenting-a egitean izango luketen sentsazio bera zuten sabelean.

Olatuak hondarrean idatzitakoa ezabatzen duen bezain erraz ezabatu zen Oriolen izena Jararen bihotzetik.

Aurikularren kablea baino nahasiago zegoen Jararen bihotza.

Jarak, une hartan, whatsapp bat jaso zuen. Bihotzean su artifizialen azken traka nabaritu zuen.

Estralurtar kuadrilla bat agertu, beren espaziontzian sartu eta ahalik eta urrutien eraman zezaten nahi zuen.

Negarrak eztarrian eragin zion korapiloak une batetik bestera eztanda egingo zio-la iruditzen zitzaion.

Irakurmen-testa

1 c; 2 b; 3 c; 4 a; 5 a; 6 b; 7 a; 8 b; 9 b; 10 c.